

Propaganda eta publizitatea

4

BIDEOAREN EDUKIAREN LABURPENA

SARRERA-IRAGARKIA (00:00) Mirutegia Telebista egiten dutenak oso pozik daude, uste baino ikusle gehiago daukatela eta. Berri pozgarria ospatzeko, iragarki bat egitea pentsatu dute, eta horretan dihardute, buru-belarri, Mirutegiakoak.

Iragarki egileekin egiten duten lehen hartu-harremanean, Jon ikusten dugu Anderri aginduak ematen. Itxura guztien arabera, Jon da iragarkiaren zuzendaria eta Ander aktorea.

“Pantaila gramatikal berezia”

GIZARTEA (05:13) Gizartearen atalerako Ana Zirikari Apartaga Eztenbizi publizitate etxeko arduradunarekin hitz egitera joan da. Hor aritu dira, kazetaria eta iragarki egilea, jo eta su, egunero, etxeko postontzia betetzen duten paperezko iragarkien logikaz.

“Pantaila gramatikal berezia”

INGURUMENA (08:13) Aldundiak kanpaina bat antolatu omen du gure basoak zaintzeko. Kanpaina horren aurkezpenean izan da Miren, Mirutegiako ingurugiro gaietarako aditua. Biritxi aintziraren ondoan izan dira politikariak eta kazetariak. Benetan aurkezpen bitxia Biritxi aintziraren ondoan burutu dutena. Mirenek ez du detailerik txikiena ere galdu eta den-dena kontatzen digu.

“Pantaila gramatikal berezia”

IRAGARKIA (12.36) Albistegia bukatzeko, egin duten iragarkia erakutsiko digute.

HELBURUAK ETA EDUKIAK

SARRERA-IRAGARKIA

HELBURUA

Talde lanean aritzeak duen garrantzia baloratzea.

EDUKIAK

DENBORAZKOAK

Lehenagokoak:

ORDUKO, BAINO LEHEN, AURRETIK. -T(Z)ERAKOAN

Aldi berekoak:

-T(Z)EAN

Ondorengoak:

ONDOREN, ETA GERO, OSTEAN

KAUSALAK: -(E)NEZ

Eta oso pozik **gaudenez**

INSTRUMENTALA

ZEREN GAINEAN?

Euskaldunen **ohituren gainean.**

ZEREZ?

Euskaldunen **ohiturez.**

ZERI BURUZ?

Euskaldunen **ohiturei buruz.**

ADITZA (agintera)

Entzun Ander. Sartu eta ordenagailura etorri.

Honaino iristean, **gelditu**, paperak mahai gainean **jarri**, jarlekua atzera **bultzatu** eta **eseri**.

GIZARTEA

HELBURUA

Informazioa izateak eta informazio hori, dagokion neurrian, baloratzeak duten garrantziaz ohartzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Hortik atera kontuak / Harrigarria, benetan / Ez dut astirik dena begiratzeko /
Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago / Jakina! Zer uste duzu, bada? /
Jendea ez al da nazkatzen? / Batzuk ederki aprobetxatzen dituzte /

KONPARATIBOAK

Berdintasuna: (Nola?) HONEN, HORREN, HAIN
Hain aspertuta bukatu dut... / **Hain** inportantea al da publizitatea?

(Zenbat?) HONENBESTE, HORRENBESTE, HAINBESTE

Mundu guztiak jasotzen al du **hainbeste** paper?

Desberdintasuna: ...BAINO ...-AGO

Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago.

Goreneko maila: -(RIK) -ENA

Publizitate(rik) **onena** duenak irabazten du.

DENBORAZKOAK

Aldi berekoak:

-(E)NEAN, Etxera joan **naizenean**. / Begiratzen **duzunean** / Nahi **duzuenean**.

-T(Z)EAN Etxera **itzultzean**

INGURUGIROA

HELBURUAK

Ahozko berbaldiak ulertzea, eta zein komunikazio egoeratan sortzen diren ezagutzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Antza denez / Berriro / Arazoa / Ahaldun (diputatu) nagusia /

KONPARATIBOAK

Aurreko atalean ikusi eta landu ditugunak.

Gehiegizko maila: -EGIA Aldundiaren bereizgarria **handiegia** da.

ZENBAT ETA... -AGO, HAINBAT ETA... -AGO

ZENBAT ETA... -AGO, ORDUAN ETA... -AGO

GEROZ ETA... -AGO, HAINBAT ETA... -AGO

GEROZ ETA... -AGO, ORDUAN ETA... -AGO

HAINBAT ETA... -AGO, ORDUAN ETA... -AGO

Zenbat eta garbiago basoa, orduan eta ederrago paisaia.

Zenbat eta zuhaitz gehiago basoan, orduan eta airea garbiago munduan

-GARRIATZIZKIA

Maitagarri / Bereizgarri / Penagarri / Zoragarri / Liluragarri /

BIDEOA IKUSI ETA GERO EGITEKO MODUKO ARIKETA OSAGARRIAK

SARRERA-IRAGARKIA

—Iragarkian ikusi dugunaren antzeko lan bat egingo dugu. Lehendabizi, ikasleek idatziz adieraziko dute aktoreak egin beharko lukeena. Garrantzi handia dauka aktorearen urrats guztiak zehatz-mehatz agertzea. Hori eginda, idazkiaren jabea zuzendari bihurtuko da eta aktoreak aukeratuko. Ondoren, aktoreei zer egin behar duten adieraziko die. Aktoreek saioak egiten dituzten bitartean, zuzendaria adi-adi egongo da beharrezko aginduak emateko eta zuzenketak egiteko.

Lan hau taldeka egiten badugu, taldekoen artean aktorearen edo aktoreen mugimendu eta ekintza guztiak adostu eta gero, zuzendari bat aukeratzea eta hark esaten duenari kasu egitea komeni da.

GIZARTEA

—Bideoan etxeko postontzira ekartzen diguten publizitate orrien gainean hitz egiten da. Bertan, publizitate agentziako arduradun omen den batek bere arrazoiak ematen ditu.

Atal honen lanketarako ikasleen artean etxera iristen den publizitatearen gainean eztabaidatzea proposatzen da.

Eztabaida hasi aurretik, ikasle bakoitzak bere iritzia idatziz prestatuko du, ondoren, gelako kideen aurrean esan beharrekoak ordena logikoan agertzeko.

Eztabaida bideratzeko, irakasleak edo ikasle batek, gidari papera egin beharko du.

INGURUMENA

—Bideoan politikari omen den batek hitzaldi labur bat egiten du. Har dezagun gai bera eta esan diezaiegun ikasleei hitzalditxo bat idatz dezatela gero, beste ikasleen aurrean irakurtzeko.

Albistegiaren amaierako iragarkia

Honakoan proposatzen den ekintza aurreko hirurak batuz egin daiteke.

Xedea iragarki bat egitea da. Iragarkiaren gaia eta gidoia ikasleek garatuko dute. Horretarako, ikasle taldea talde txikiagotan banatzea litzateke egokiena.

Gidoian, zehatz-mehatz, irudietan ikusiko dena adieraziko dute. Horretarako, iragarkiaren irudi edo plano bakoitzari bere zenbakia eman, eta bertan, zer gertatzen den eta nola gertatzen den taldeko partaideen artean adostu ondoren, partaide bakoitzak idatziz adieraziko du, irudi edo plano bakoitzari orrialde bat eskainiz. Bertan, aktoreen mugimenduak, aktoreen jantziak, osagarriak, tokiko apaingarriak, erabiliko dituzten gauzak eta horrelakoak argi eta garbi agertuko dituzte. Horrela, ikasleko koaderno bat izango dugu.

Ondoren, lanean hasiko dira. Talde adina iragarki egingo dute. Lehenengo lana, iragarkia garatuko den tokia aukeratzea eta apaintzea izango da; eta bigarrena, kameraren kokaguneak zehaztea eta filmazioaren plangintza erabakitzea.

Bukatzeko, saioak burutuko dituzte dena argi geratu arte eta irudiak hartuko dituzte.

Irudiak hartzeko aldia iritsi aurretik, den-dena ongi adostua eta erabakia egon behar du, filmazio garaian ahalik eta denborarik gutxien galtzeko.

EBALUAZIOA

Ikasleek egin duten iragarkia izango da gure ebaluazioa egiteko tresna. Alde batetik, ikasle bakoitzak prestatu duen koadernoak daukagu, eta bestetik, ikasleek aktoreekin egin dituzten saioetan, ahoz nola moldatu diren ikusiko dugu.

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:

- paperean prestatutako txostena txukun dagoen.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideo ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Ahozko saioan ere lau puntu hartuko ditugu kontuan:

- azalpenak egiterakoan era ordenatuan egiten dituzten.
- esaldiak ongi osatzen dituzten.
- klasean landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Oro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera, eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren balorazioa egingo dugu.